



PRO ORANTIBUS 2020 JARDUNALDIA

Otoitza

Oi Jainko, gora zaitzala Elizak
bedeinkapen- eta gorespen-gorazarrez
zeure Seme Jesu Kristogatik;
izan ere, Maria beti Birjinagandik sortu zen,
Espiritu Santuaren egitez,
munduaren kontsolamendu izateko.

Gure Ama Mariak, zerura eramana izanik,
salbamen- eta itxaropen-seinale bezala distiratzen du
oraingo probaldi honetan.

Beraren otoitzari esker, argi itzazu, Aita,
komentuko itxialdia onartu zuten
zeure seme-alaben bihotzak,
beren eskaintza eskuzabala Elizaren bihotzean bizitzeko,
zure izenarenganako maitasunez
hartu baitzuten bizibide hori.

Zure graziaren laguntzaz egizu,
eskain dezatela beren bizia oso-osorik zure aintzarako
eta berorien senideek antzeman dezatela horiengan
amaren maitasunaren seinalea,
maitasun horrekin kontsolatzen baititu Ama Mariak
sinesmenez dei egiten dioten guztiak.

Amen.



CONFERENCIA
EPISCOPAL
ESPAÑOLA

Comisión Episcopal
para la Vida Consagrada
Añastro, 1 · 28033 Madrid

vidaconsagrada@conferenciaepiscopal.es